

Aztertu arreta handiz taula honetako datuak. Izan ere, taulan Arabako lurralde historikoko eremu batzuen klimari buruzko datuak ematen dira.

Parametro meteorologiko nagusiak, estazioen arabera. 2007

	Kota(m)	Prezipitazioa (l/m ²)			Tenperatura (° C)				
		Metatua	Gehienekoa egun batean	Egun kopurua	Batez bestekoa	Batez besteko gehienekoa	Batez besteko gutxienekoa	Gehieneko absolutua	Gutxieneko absolutua
ARABA									
Abetxuko	510	678	30	144	11,4	17,2	6,4	36,6	-8,2
Alegria	545	783	35	152	10,8	16,0	6,0	35,6	-10,8
Altube	618	1.154	47	181	11,1	16,4	6,4	36,6	-8,5
Arkaute	517	696	32	151	10,9	16,6	5,7	36,2	-11,3
Espejo	504	685	45	145	13,1	19,7	7,3	39,2	-6,9
Gardea	141	1.151	59	168	12,6	18,2	8,1	37,3	-4,9
Gorbea	662	1.424	80	186	10,8	16,3	6,3	34,7	-5,9
Herrera	1.188	737	38	183	8,0	11,6	4,9	30,0	-6,7
Iturrieta	987	1.059	49	162	8,7	13,6	3,9	34,1	-13,0
Kapildui	1.173	:	:	:	:	:	:	:	:
Llodio	207	1.171	51	182	12,8	18,0	8,7	37,9	-4,8
Navarrete	689	740	34	153	9,1	14,9	3,7	33,9	-10,5
Ozaeta	548	952	46	164	10,3	16,2	4,9	34,9	-11,7
Páganos	577	513	30	113	12,0	17,4	7,3	35,6	-6,2
Salvatierra	589	824	40	158	10,7	16,5	5,4	36,5	-14,7
Saratxo	230	808	32	149	11,4	16,8	6,8	36,3	-7,3
Subijana	537	784	59	154	11,7	18,0	6,2	39,6	-8,0
Vitoria-Gasteiz	546	649	30	135	12,3	16,9	8,4	37,1	-6,0
Zaldiaran	980	635	39	162	8,0	12,2	4,8	32,2	-8,8
Zambrana	470	525	36	136	11,8	17,9	6,4	37,3	-7,9

❖ Zein da Araban altitude handienera dagoen estazio meteorologikoaren izena?

.....

❖ Zeinetan egon da batez besteko maximoen arteko batez besteko tenperaturarik altuena?

.....

❖ Zein estaziotan bildu da prezipitazio metatu gehiago?

.....

❖ Eta batez besteko minimoen artean?

.....



Geo-klima eta ingurumena

Taulako banaketa batzuk aztertuko ditugu:

❖ Kalkula itzazu prezipitazio metatu osoaren mediana, moda eta batezbestekoa. Kalkulu-orri bat erabiltzen badakizu, erabili ezazu hurrengo kalkuluak egiteko.

Mediana:

Moda:

Batezbesteko aritmetikoa:.....

❖ Aldi horretan, Gipuzkoako batez besteko prezipitazio metatua 1.493 l/m²-koa izan zen. Datu horiek kontuan hartuta, zer esan dezakezu Gipuzkoako klima eta lurralde osoaren batezbestekoa alderatzeko?

.....
.....
.....
.....

❖ Zein da Altuben urte osoan zehar dagoen batez besteko prezipitazioa?

.....

❖ Zein da Altuben euria egin duen egun bakoitzko batez besteko prezipitazioa?.....

❖ Azal ezazu nola erantzun dituzun bi galdera horiek eta bien arteko ezberdintasuna.

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

❖ Kalkula itzazu batez besteko tenperatura maximo eta minimoen mediana eta batezbestekoa. Kalkulu-orri bat erabiltzen badakizu, erabili ezazu hurrengo kalkuluak egiteko.

Batez besteko tenperatura maximoa:

Mediana:

Batezbesteko aritmetikoa:

Batez besteko tenperatura minimoa:

Mediana:

Batezbesteko aritmetikoa:

❖ Aurreko banaketetako bakoitzean zein da baliorik handiena, batezbestekoarena edo medianarena? Zein da emaitza horien esanahia?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

❖ Esan zein 3 eremuk duten bere batez besteko tenperatura maximoa banaketa osoaren batezbesteko aritmetikoaren gainetik:

.....
.....

❖ Esan zein beste 3 eremuk duten bere batez besteko tenperatura minimoa banaketa osoaren batezbesteko aritmetikoaren azpitik:

.....
.....